

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarkiak

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuaren 172/2021 Foru Agindua, martxoaren 18koa. Onestea pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren eta ondarearen gaineko zergaren 2020ko ekitaldiko aitortenak aurkezteko arauak eta modalitateak

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauak 102.7 artikuluan xedatutakoaren arabera, "autolikidazio ereduak eta autolikidazio modalitate erraztu edo berezien erabilera Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak onetsiko ditu. Era berean, foru diputatu horrek finkatuko ditu aurkezteko modu eta epeak nahiz euskarri telematikoen bitartez autolikidazioak aurkezteko egoerak eta baldintzak".

Bestalde, Ondarearen gaineko Zergaren martxoaren 11ko 9/2013 Foru Arauak 36. artikulua-ren Bat apartatuan ezartzen duenez, subjektu pasiboak behartuta daude Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak ezarritako leku, modu eta epeak errespetatuz autolikidazioa aurkeztera eta, hala badagokio, zerga zorrak ordaintzera.

Aurki hasiko da pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren eta ondarearen gaineko zergaren 2020ko ekitaldiko aitortenak aurkezteko epea.

Hori dela eta, besteak beste, aitorten modalitateak eta aitortenak aurkezteko epea arautu behar dira.

Xedapen hau da tresnarik egokiena helburu horiek lortzeko. Araudi honek proportzionaltasun printzipioa betetzen du, eta xedapen honekin bete nahi den beharrari erantzuteko ezinbestekoak diren arauak biltzen ditu. Ez dago xede horretarako beste neurririk, hartzaileen eskubideak gutxiago murrizten dituenik edo hartzaileei betebeharrak gutxiago jartzen dizkienik.

Ekimen honen bidez segurtasun juridikoaren printzipioa bermatzen da, eta koherentea da estatuko eta Europar Batasuneko gainerako ordenamendu juridikoarekin.

Foru agindu hau izapidetzean gardentasun irizpideari jarraitu zaio, zeina Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 129. artikuluan arautzen baitu.

Arabako Foru Administrazioaren Kontsulta Batzordearen Arautegi Organikoak 3. artikulua-ren 3. apartatuan xedatutakoaren arabera, batzorde horren txostena ez da nahitaezkoa.

Zuzeneko Zergen Zerbitzuak horren harira emandako txostena aztertu da.

Horregatik, eta dagozkidan eskumenez baliatuz, hau

XEDATZEN DUT

1. artikulua. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren eta ondarearen gaineko zergaren aitorten modalitateak

Bat. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga.

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren aitortenak hurrengo sistema hauen bidez aurkez daitezke:

A) rentafácil:

1. Arabako Foru Aldundiak zenbait zergaduni kalkulatzeko dizkien autolikidazio proposamenak dira. Autolikidazioaren balio juridikoa izango dute, zergadunak proposamen horrekin ados dagoela adierazten duen unean. Adostasuna adierazi eta gero, itzulketa egingo da edo, hala badagokio, ateratzen den kuota helbideratuko da.

2. Autolikidazio proposamenak kalkulatzeko zaizkien zergadunek beraiek aldatu ahal izango dituzte, proposamenetan honako hauek sartzeko:

a) Etxebizitzetatik datozen kapital higiezinaren etekinak, pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergari buruzko azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauaren 32. artikuluan 1. apartatua aipatzen direnak.

b) Ohiko etxebizitza alokatzeagatik kenkaria, pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergari buruzko azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauaren 86. artikuluan aurreikusitakoa.

Aldaketa horiek Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa egin behar dira, www.araba.eus web orrian. Horretarako, baliozkoak izango dira lizenpek emandako Bak eta Bakq identifikazio eta sinadura elektronikorako baliabideak, bai eta egoitza elektronikoa horretan baliozkoa den beste edozein ziurtagiri digital ere.

Zergadunak aldaketa horiek egin dituela eta aldatutako proposamena onartu duela egiaztatzen den unean, proposamen horrek autolikidazioaren balio juridikoa izango du, eta dagokion kuota itzuli edo, hala badagokio, helbideratuko da.

3. Zergadunak, horretarako emandako epearen barruan, ez badu adierazten jasotako proposamenarekin ados dagoela, edo ez badu 2 apartatua adierazitako moduan aldatzen, administrazio jarduna egin gabekotzat emango da eta zergadunak pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergaren aitorpena aurkeztu beharko du, horretara beharturik badago, gainerako sistemetako baten bitartez.

B) rentared:

Pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergaren aitorpena egiteko Arabako Foru Aldundiak prestatutako laguntza programa erabiliz zergadunak egindako aitorpenak dira. Aitorpen horiek Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa bidez (www.araba.eus) bidaltzen dira.

Aitorpenak bidaltzeko, baliozkoak izango dira lizenpek emandako Bak eta Bakq identifikazio eta sinadura elektronikorako baliabideak, bai eta egoitza elektronikoa horretan baliozkoa den beste edozein ziurtagiri digital ere.

C) rent@raba:

1. rent@raba pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergaren aitorpenak egiteko zerbitzu bat da, zeina Arabako Foru Aldundiaren ogasun bulegoen bidez ematen baitzaie zenbait baldintza betetzen dituzten zergadunei.

Arabako Foru Aldundiak egiaztatutako kudeatze eta aholkularitza bulegoek ere sistema honen bidez aurkez ditzakete zergadunen aitorpenak.

2. Zerbitzu hau doan emango zaie, Arabako Foru Aldundiaren ogasun bulegoetan, pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergaren zergadun guztiei, salbu eta honako hauei:

a) Jarduera ekonomiko bat egiten dutenei.

b) 2020ko ekitaldian ohiko etxebizitza eskualdatu dutenei.

c) 2020ko ekitaldian balio higigarrien edo higiezinaren salmentako hiru eragiketa baino gehiago egin dituztenei.

d) 2020ko ekitaldian balore merkatu arauturen batean negoziatzeko onartu ez diren merkataritza sozietateen akzioak edo partaidetzak eskualdatu dituztenei.

e) 2020ko ekitaldian, negozio lokalen, bulegoen edo apartamentu turistikoaren errentamendutik edo lagapenetik datozen kapital higiezinaren etekinak eskuratu dituztenei.

f) 2020ko ekitaldian 80.000 eurotik gorako lanaren etekin osoak eskuratu dituztenei.

Bi. Ondarearen gaineko zerga.

Ondarearen gaineko zergaren aitortpenak Interneten bidez aurkeztu behar dira. Zergadunek eta Arabako Foru Aldundiak egiaztatutako kudeatze eta aholkularitza bulegoek egingo dituzte aitortpenak, Arabako Foru Aldundiak prestatutako ondarearen gaineko zergaren laguntza programa erabiliz, eta egoitza elektronikoaren (www.araba.eus) bidez bidaliko dituzte.

Aitortpenak bidaltzeko, baliozkoak izango dira lizenpek emandako Bak eta Bakq identifikazio eta sinadura elektronikorako baliabideak, bai eta egoitza elektronikoko horretan baliozkoa den beste edozein ziurtagiri digital ere.

Hiru. Baldin eta Arabako Foru Aldundiak egiaztatutako kudeatze eta aholkularitza bulego baten bidez aurkezten bada pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren aitortpena rent@raba modalitatean edo ondarearen gaineko zergaren aitortpena, borondatezko ordezkartzako Bi a) azpimaila eman beharko da, bat etorri apirilaren 13ko 15/2010 Foru Dekretuan xedatutakoarekin. Dekretu horrek Arabako Foru Ogasunaren aurrean, zergen arloan, zenbait izapide eta jardura egiteko emandako borondatezko ordezkartza arautzen du eta Borondatezko Ordezkarien Erregistroa sortzen du.

2. artikulua. Laguntza programen banaketa

Laguntza programak www.araba.eus helbidean deskarga daitezke.

3. artikulua. Frogagiriak

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren eta ondarearen gaineko zergaren aitortpenekin batera, zergadunen zerga datuetan jaso gabe dauden edo jasota daudenetik ezberdinak diren frogagiri aplikagarriak aurkeztu behar dira, aitortpenean agertu behar diren mota guztietako eragiketa, errenta, gastu, diru sarrera, murrizketa eta kenkarien arabera.

Arabako Foru Aldundiak egiaztatutako kudeatze eta aholkularitza bulegoek rent@raba modalitatearen bidez egindako aitortpenei erantsitako frogagiriak telematikoki aurkeztu behar dira aitortpenarekin batera.

4. artikulua. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren eta ondarearen gaineko zergaren 2020ko ekitaldiko aitortpenak aurkezteko epea

Hona hemen pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren eta ondarearen gaineko zergaren 2020ko ekitaldiko aitortpenak aurkezteko epeak:

1. rentafácil:

Zergadunei igorritako aitortpen proposamenen baieztapenak, bai eta foru agindu honen 1. Bat artikulua A) letraren 2. apartatuan aipatzen diren horien aldaketak ere, 2021eko apirilaren 7tik uztailaren 9ra egin ahalko dira.

Proposamen horien aldaketak Foru Ogasunaren bulegoetan ere egin ahal izango dira, 2021eko apirilaren 12tik uztailaren 16ra, baldin eta zergaduna ez badago foru agindu honen 1. Bat artikulua C) letraren 2 apartatuan jasotako baztertze kasuetakoren batean.

2. rent@raba:

– Hasiera data:

a) Foru Ogasunaren bulegoetan: 2021eko apirilaren 12a.

b) Arabako Foru Aldundiak egiaztatutako kudeatze edo aholkularitza bulegoen bidez: 2021eko apirilaren 19a.

– Amaiera data: 2021eko uztailaren 16a.

3. rentared:

- Hasiera data: 2021eko apirilaren 7a.
- Amaiera data: 2021eko uztailaren 16a.

4. Ondarearen gaineko zergaren aitortpenak:

- Hasiera data: 2021eko apirilaren 19a.
- Amaiera data: 2021eko uztailaren 16a.

5. artikulua. Ordainketa

Bat. Oro har, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren eta ondarearen gaineko zergaren autolikidazioen ondoriozko zenbatekoa osorik ordaindu beharko da 2021eko uztailaren 20ra arte.

Hala ere, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren araudia onesten duen abuztuaren 1eko 40/2014 Foru Dekretuak 71.2. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, zerga horren autolikidazioaren zenbatekoa bi zatitan ordain daiteke, inolako interesik eta errekar gurik gabe:

- a) Lehenengoa, zenbatekoaren ehuneko 60koa, 2021eko uztailaren 20ra arte ordaindu ahalko da.
- b) Bigarrena, gainerako ehuneko 40koa, 2021eko azaroaren 10era arte ordaindu ahal izango da.
- c) Zatikapen hori ez zaie aplikatuko foru agindu honen 4. artikuluan ezarritako epetik kanpo aurkeztutako autolikidazioei, ez eta autolikidazio osagarriei ere.
- d) Lehenengo zatia apartatu honen a) letran ezarritako epe barruan ez ordaintzeak berekin ekarriko du zor guztia betearazpen bidean kobratzea, bat etorriz otsailaren 28ko Zergen 6/2005 Foru Arau Orokorrak 165.1 b) eta 165.3 artikuluetan xedatutakoarekin.

Bi. Oro har, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren eta ondarearen gaineko zergaren aitortpenak aurkezteak berekin dakar kuotak helbideratzea zergadunek beren aitortpenetan adierazitako kontuetan.

Edonola ere, ordainketa pasabidearen edo ordainketa gutunaren bidez ordaindu ahalko da pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren kuotaren lehen zatia (artikulu honetako Bat apartatuan aipatzen den zatikapena aukeratuz gero) edo kuota osoa (zatikapena aukeratu ezean) rentaraba eta rentared modalitateetan, baita ondarearen gaineko zergaren kuota ere.

2021eko uztailaren 10etik aurrera, ondarearen gaineko zergaren kuota ezin izango da helbideratu, ezta pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren kuotaren lehen epea (zatikapena aukeratuz gero) edo kuota osoa ere (zatikapena aukeratu ezean), eta ordainketa ordainketa pasabidearen edo ordainketa gutunaren bidez egin beharko da.

AZKEN XEDAPENA

Foru agindu honetako xedapenak ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko dira indarrean, eta 2020ko ekitaldiko pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren eta ondarearen gaineko zergaren aitortpenei aplikatuko zaizkie.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko martxoaren 18a

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua
ITZIAR GONZALO DE ZUAZO

Ogasun zuzendaria
MARÍA JOSÉ PEREA URTEAGA